

Nola landu eta ebaluaratu ikasleen ahozko komunikazio- gaitasuna? Euskara-ikasleen ahozko hizkuntza sekuentzia didaktikoen bidez lantzeko proposamena



Ira. 07 - Ira. 08 2022

Kod. H09-22

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2022

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 07 - Ira. 08 2022

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Uda Ikastaro honen helburu nagusia da irakasleak ikasleen ahozko komunikagaitasuna lantzeko proposamen metodologikoaz jabetzea, ahozkoaren planifikazioan eta sistematizazioan sakonduz, emaitza hobeak lortzeko.

Nola lantzen dugu ikasleen ahozko komunikagaitasuna ikasgelan? Oro har, irakasleek euskara-eskoletan ahozko adierazpenaren eta elkarrekintzaren gaitasun komunikatiboa lantzen badute ere, emaitza hobeak lortzeko, garrantzizkoa da ikas-irakas prozesua behar bezala planifikatzea eta sistematizatzea.

Ahozko ekoizpena lantzean, komeni da helburu eta irizpide zehatzak izatea, zer eta nola ebaluatu jakiteko, eta guztia ebaluatzea ez jotzeko. Bestalde, grabazioak erabiliz, ahozko ekoizpena ez da galtzen, eta horrek aurrerapena eraginkorrago balioesteko aukera ematen du eta, hala, ebaluazioa errazagoa eta neurgarriagoa da.

Egitasmo metodologiko honek ahozko ekoizpena lantzeko zailtasunak eta arazoak identifikatzen laguntzen digu (denbora falta, metodologia...); hartara, errazagoa izango da aurrerabiderik egokiena gauzatzea.

Curriculumak ezarritako oinarritzko helburuetako bat da hizkuntza-erabiltzailearen komunikazio-gaitasuna garatzea. Ahozko adierazpena da komunikazio-modu zuzenena, eta horixe dugu ikasgelan propio lantzeko helburua.

Helburuak

Irakasleak ikasleen ahozko komunikagaitasuna lantzen eta ebaluatzen gaitzea.

Ahozkoaren curriculum lantzeko ahozko ekoizpenen programazioa egiten hastea.

Ahozko ekoizpena gelan lantzen hasteko oinarri didaktikoak finkatzea.

Ahozkoaren ebaluazioan trebatzea. Horretarako, nahitaezkoa da ikasleen ekoizpenak grabatzea.

Ikasleen parte-hartze aktiboaren bidez, haien motibazioa sustatzea.

Ikasleak elkarreraginerako behar dituzten hizkuntza baliabideetan trebatuz joatea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2022-09-07

14:15 - 14:25	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Jokin Azkue Arrastoa HABE - Zuzendaria Borja Ariztimuño Lopez HABE - Didaktika Zerbitzuko teknikaria
14:25 - 14:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Borja Ariztimuño Lopez HABE - Didaktika Zerbitzuko teknikaria
14:30 - 16:30	“Ahozko komunikazio-gaitasuna: ezugarriak eta baliabideak” Yolanda Olasagarre Mendinueta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua - EIBZko irakaslea
16:30 - 17:00	Atsedena
17:00 - 19:30	“Ahozkoa nola irakatsi: testu-generoak eta sekuentzia didaktikoa.” Sekuentzia didaktiko bat diseinatzeko. Yolanda Olasagarre Mendinueta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua - EIBZko irakaslea

2022-09-08

09:00 - 11:30	“Tkasleekin negoziatzeko, motibazioari keinua.” Sekuentzia didaktiko bat gelaratzen. Yolanda Olasagarre Mendinueta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua - EIBZko irakaslea
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 14:00	“Tkasleen ahozko ekoizpena ebaluatzen.” Yolanda Olasagarre Mendinueta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua - EIBZko irakaslea
14:00 - 14:30	Sintesia

Zuzendaritza



Borja Ariztimuño Lopez

HABE

Euskal Filologian lizentziatu (EHU, 2009) eta Hizkuntzalaritzako Unibertsitate Masterra eginik (EHU, 2011), Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean irakasle aritu da zenbait urtez, Gasteizko eta Donostiako Hezkuntza Fakultateetan; besteak beste, "Komunikazio Gaitasunaren Garapena" eta "Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika" irakasgaiak eman ditu. Gaur egun, HABEko Didaktika zerbitzuan dihardu, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloko teknikari.

Irakasleak



Yolanda Olasagarre Mendinueta

EIBZ-Nafarroako Gobernua

Soziologia eta Zientzia Politikoetan Lizentziatua (Deustuko Unibertsitatea, 1989). Hizkuntza-Plangintza Graduondoko Unibertsitate-Diplomatua (EHU, 1994). "Adimen-gaitasun handiko ikasleen diagnostikoan eta heziketan" Unibertsitate-aditu titulua (UNED, 2011). 2006an hasi nintzen Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan (EIBZ, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua) jarduneko irakasleen prestatzaile gisa zenbait formazio sortu eta ematen. Batez ere, honako arlotan aritzen naiz: ikasleen ahozko komunikazio-gaitasunean, ikasleen hizkuntzarekiko motibazioan eta adimen-gaitasun handiko ikasleen arretan. Prestakuntzaz gain, irakasleei baliabideak eta laguntza eskaini behar zaiela sinetsita nago eta horregatik sortu ditugu "Ahozko hizkuntza irakastea" webgunea eta "Motibazioa Sustatzeko Baliabideak" bloga. Arlo horiek ikerketarekin lotzea beharrezkoa dela pentsatuta, DBHko ikasleen hizkuntza-atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku-hartzea burutu genuen 2016an. Adimen-gaitasun handikoen gaiarekin lotuta koblog pertsonala: <https://adimengaitasunhandiak.eus/> Twitter kontua: @yolarbizu

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2022-09-07 ARTE
Orokorra	80,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	68,00 EUR
Matrikula exentzioa	56,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	68,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	68,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	68,00 EUR
Elkar	68,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa